

### **UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA XXI. MENDEAN: ERRONKAK AUKERA BIHURTUZ**

#### **1. Sarrera**

Unibertsitateak egiteko berezia du gizartean, erdi-mailako ikasleak prestatu behar dituelako, jantziak eta profesional onak izanik, gizarteak dituen beharrizanen zerbitzura izan daitezzen, guztion ona oinarri, gizarte hobearen lortzeko helburuarekin beti.

Jakina, horrek berarekin dakar unibertsitatea ondo errotuta egotea gizartean. Eta gizarte aurreratuak munduan ondo kokatuta egon behar direnez, mundializazio edo globalizazio deritzonari erabat irekita, unibertsitateak ere, nahitaez, zabal jokatu behar du horretan, nazioarteko gorabeheretan arreta berezia jarritz.

Horrenbestez, unibertsitatean eskutik joan behar dira tokian-tokiko nahiz mundu-mailako errealitateak, elkar osatu eta aberastuz.

Bada, saiakera-antzeko honetan, gogoeta egin nahi da, XXI. mendean, unibertsitateak eta euskarak duten loturaren artean. Hain zuzen, horretarako, funtsezkoa da euskara, gure gizarteko errealitate gisa, mundu-mailako errealitatearekin uztartzea. Zeregin horretan ugari dira arrazoiak. Baina arrazoiak euskararentzako aukera bihurtu daitezke unibertsita-

tea behar bezala antolatzen bada, plangintza egokiak eginez, maila profesionalean ere euskarak bere tokia izan dezan, kalitatearekin eta normaltasun osoarekin izan ere.

Esangura horretan, badago gogoeta non egin. Zergatik eta nola erakarri ikasleak unibertsitate-ikasketak euskaraz egitera? Gaur egungo unibertsitate-ereduak laguntzen ote du euskarazko irakaskuntza kalitatezkoa izaten? Zein neurritan? Eta, hala behar izanez gero, zelan hobe daiteke hori?

Jarraian ahaleginak egingo dira, itaun horiei erantzuteko, uste izateagatik kasuan kasuko erantzunetan aurki daitezkeela, aurrena, unibertsitateak eta euskarak XXI. mendean dituzten erronkak, eta, hurrena, erronketatik euskararentzako sor daitezkeen aukera berriak, erabateko normalizaziorako bidean.

Egia esan, itaun horiek lotura estua dute euren artean, eta, batzuetan, zaila ere izan daiteke euretariko bakoitzari erantzutea, hurrengo itaunaren erantzuna aintzat hartu gabe. Horregatik, ikuspegi zabala eta oro hartzailea behar da, erantzun guztiak osotasunean kontuan hartuz.

Bestalde, unibertsitatearen baitan jakitate bakoitzak bere berezitasunak dituenek, ikuspegi orokorra eskainiko da hemen, kalterik egin gabe jakitate horietako bakoitzean landu daitezkeenari aztergai denaren inguruan.

Bukatzeko, ezin ukatu, tarteka-marteka, zuzenbideko adibi-deak erabiliko direla, lan honen egilearen esperientzia ikasketak horietan oinarritzen delako, irakasle, ikertzaile eta fakultateko idazkari gisa.

## **2. Zergatik eta nola erakarri ikasleak unibertsitate-ikasketak euskaraz egitera**

Euskaldun izanik, eta unibertsitatara heldu aurretik ikasketak euskaraz eginda, normala litzateke, behin unibertsitatara

helduta, ikasleek euskaraz jarraitzea. Arrazoi horiek, ordea, ez dira nahikoa ikasleek unibertsitate-ikasketak euskaraz egiteko.

Egin-eginean ere, asko dira, halako baldintzak bete arren, Euskadiko Autonomia Erkidegoan unibertsitate-ikasketak gaztelaniaz egitea erabakitzen dutenak. Horren zergatia ulertzeko nahiko da ikasle horiekin hitz egitea, euren kezkek entzutea, eurekiko gertukotasuna agertzea. Bada, urtero, jardunaldi bereziak edo ate irekien jardunaldiak antolatu ohi dira unibertsitatean hasi nahi duten ikasleentzako. Bertan sortzen da aukerarik onena hori guztiori egiaztatzeko.

Horrela, ikasle askok uste izaten dute euren euskara-maila ez dela behar bestekoa unibertsitate-ikasketak ere euskaraz egiteko. Edo segurtasunik ez dute behintzat. Beste ikasle askok zalantzak izan eta ez dute argi ikusten euskaraz ikas daitekeenik, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez ikas daitekeen maila berean. Halaber, sarritan, mesfidantzaz ikusten dute euskarazko irakasleen euskara-maila edota irakasgaietako materialak euskaraz ote dauden galdetzen dute. Zenbaitzuek lanbide-irtenbideei erreparatu eta uste izaten dute ez duela merezi euskaraz ikasterik, gerogarrenean, lanean dihardutela, beste hizkuntza bat erabiliko badute, edota euren ogibidean behar dituzten lanabes guztiak beste hizkuntza batzuetan egongo badira. Hori berori gertatzen da, esate baterako, Zuzenbidean. Jakina da auzitegietan euskarak ia-ia tokirik ez duela, eta izatekoan itzulpengintzaren bidez dela. Abokatuek ere Justiziarekin dituzten harremanetan, oro har, ez darabilte euskararik. Epai guztiak gaztelaniaz daude. Doktrina zientifikoa gaztelaniaz dago... Labur-zurrean esanda, badira ikasleak ikasketak euskaraz egitea denbora-galtze bezala ikusten dutenak, alferrikako esfortzu gisa alegia.

Halatan, ezin uka daiteke zenbait lanbidetan euskararen egoera kezkagarria ez denik. Baina, hain zuzen, egoera horrek bultzatu behar du unibertsitatea ikasle euskaldunak jaki-

tate guztietan behar bezala euskaraz trebatzera, bihar-etzi, kasuan kasuko ogibide edo lanbidean erraztasun osoz molda daitezten euskaraz. Batak bestea ekar dezakeela uste da hemen. Ezbairik gabe, uste hori estu lotzen zaio jorratuko den bigarren puntuari, ikasgaiak euskaraz behar bezala prestatu eta azaltzeko irakasle euskaldun onak behar direlako, edukietan ez ezik, euskara teknikoan ere behar bezala prestatutakoak.

Zinez, garrantzitsua da, eta, beharbada, baita ezinbestekoa ere, ikasleek nolabaiteko *utilitas* edo abantaila antzematea ikasketak euskaraz egiteko. Horregatik, funtsezkoa da ikasgaien edo edukien euskara-kalitatearen aldeko apustua egitea.

Hasian hasi, behar bezala trebatutako ikasle euskaldun izatetik profesional euskaldun izatera igarota, gauzak asko erraztuko lirateke, euskaraz normaltasunez aritzeko.

Bestalde, unibertsitateko euskarazko irakaskuntza kalitatezkoa izan dadin, beharrezkoa litzateke ikasleek unibertsitatera heldu aurretik euskara-maila nahikoa eskuratzea, hots, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 maila izatea (EGA edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila).

Zoritarrez, azken aldian, behin baino gehiagotan, batzuek kritikatu dute C1 maila eskuratzeko gainditu beharreko azterketak gogorregiak direla, eta, ondorenez, halako azterketak erraztearen alde egin dute.

Bada, estrategia horren baitan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsi zuen 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikaske-ta ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena (2012ko apirilaren 16ko EHAA, 74. zk.).

Haatik, halako politikek kalte egiten diote unibertsitatean euskarak izan beharreko kalitateari. Izan ere, unibertsitatean

behar den euskara teknikoa menderatzeko, aldez aurretik behar besteko euskara-maila izan behar da. Beste horrenbeste gertatzen da unibertsitate-ikasketak beste hizkuntzetan egiten direnean ere. Hizkuntza menderatzen dutenek berez menderatuko dute euskara teknikoa. Ala, adibidez, zuzenbidea gatzelaniaz ikasten duten ikasleek unibertsitatera heldu aurretik badakite zer esan nahi duten *usufructo* eta *usucapión* bezalako hitz teknikoek?

Hortaz, unibertsitatera heldu aurretik ez bada euskara behar bezala menderatzen, gaitz da unibertsitateko irakasgai edo edukiak euskaraz behar bezala ulertu, landu, ikasi eta praktikan jartzea. Eta horrek berarekin dakar ikasleek ikasgaietako gaitasun bereziak behar bezala ez eskuratzea. Bestela esanda, horrela jardunez gero, ikasleek ez dituzte menderatuko ez edukiak, ezta euskara ere. Eta ezinezkoa izango da, bihar-etzi, kasuan kasuko profesionalak euskaraz modu egokian aritzea. Azken buruan, unibertsitatean kasuan kasuko edukiak dira landu eta balioetsi beharrekoak. Eta zenbait eduki gainditzeak ez du esan nahi ikasleek euskara-maila nahikorik dutenik. Horrekin ez da nahikoa.

Unibertsitatean euskara teknikoa eta jantzia da erabili beharrekoa, hain justu ere, horrek emango dielako erraztasuna eta segurtasuna gaur ikasle direnei, etorkizunean, profesional gisa ere euskaraz behar bezala aritzeko.

Orain artekoak kontuan hartuta, ikasleek unibertsitatera heldu aurretik behar bezalako euskara-maila eskuratzen badute (C1 maila) arazorik gabe gauzatuko dituzte euskaraz unibertsitate-ikasketak ere, eta, bide batez, euskara teknikoa ikasiko dute.

Horrek berarekin dakar unibertsitatera heldu aurreko ikasleen eta euren gurasoen euskal sena indartzeko premia. Euskal sen horren garrantziaz jabetu ezean, baliteke euskara ikastea inposatutako zerbait moduan ulertzea, eta ondorio latzak

izatea euskararentzat. Hartara, euskal sena kulturari lotu behar zaio, gizon-emakume guztien ondare gisa, edozein ideologia-ren gaintik. Ildo horretatik, euskara guztiona izanik ere, euskara da euskaldun egiten gaituena. Gure identitate edo nortasunari datxekio eta horregatik zaindu eta garatu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da euskara jakitate guztietan menderatzea, eta horixe da unibertsitatean oinarritu behar den egitekoa.

Nolanahi ere, unibertsitatean, euskaraz gain, beste hizkuntza batzuetan ere irakatsi beharko litzateke, baina erdi-mailako ikasleari eska dakiokena baino gehiago eskatu gabe, logikaren baitan. Esate baterako, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, unibertsitate-ikasketak euskaraz egitea erabakitzen duten ikasleek zenbait irakasgai gaztelaniaz ere izan beharko lituzkete halabeharrez. Orobat, unibertsitatean erraztasunak eman beharko lirateke, modu osagarrian beti, beste hizkuntza batzuetan sakontzeko (gutxieneko oinarri batzuk aldeztatik izan behar dituztelakoan) eta esfortzu hori nolabait saritu beharko litzateke.

Hala ez balitz, euskara bera itoko litzateke. Izan ere, euskara hizkuntza aberatsa izanik ere, orain arte behintzat ez da behar bezala landu jakitate guztietan, eta jakitateak menderatu eta euskaraz azaltzeko ezinbestekoa da, aldeztatik, jakitate horiek landu dituzten beste hizkuntza batzuk menderatzea. Ikuspegi zabala behar da beraz. Hizkuntzak komunikatzeko tresna izanik, zer komunikatu izan behar da lehenengo, eta komunikatu beharrekoa ondo komunikatu behar da gero. Hortaz, zenbat eta komunikazio-esparru nahiz -gai gehiago landu, are eta aberatsago bihurtuko da euskara. Eta, esan bezala, horretarako beste hizkuntzak ere menderatu behar dira; izan ere, beste hizkuntzak menderatuta, halakoetan dauden komunikazio-esparru eta -gaiak euskarara hedatu daitezke, euskarak izan baduelako horretarako baliabide ugari.

### **3. Gaur egungo unibertsitate-eredua eta kalitatezko irakaskuntza euskaraz**

#### ***3.1. Gaur egungo unibertsitate-eredua***

Gaur egungo unibertsitate-ereduan nahasi agertzen dira irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa. Modu horretara, bokazio akademikoa duenak nahitaez egin beharko ditu meritua aitapatu hiru arlo horietan. Bestela, gaitz izango du arduraldi osoa lortzea eta ezinezkoa, gutxienez, titulartasuna lortzea. Eta halakorik gabe, lan-baldintzen ikuspuntutik behinik behin, handia da irakasle prekarioak sortzeko arriskua.

Beharbada, komenigarri litzateke unibertsitatearen egiteko desberdinak ondo bereiztea. Izan ere, unibertsitatea irakaskuntzaz gain, zientzia edo ikerketa eta kudeaketa ere bada. Horrela, oinarrian irakaskuntza izanik, zientziaren eta kudeaketaren esparruak osagarriak lirateke, nahiz eta osagarritasun hori beharrezkoa izan. Antolaketa egokirik ezean, denbora-arazoak sor daitezke, hau da, baliteke denbora ondo ez antolatzea, eta horrek, seguru asko, ondorio negatiboak izango lituzke unibertsitatearentzako.

Irakasle bati, aldi beran, eskolak ematea, ikertzea eta kudeaketa-zereginak gauzatzea eskatzen bazaio, irakasle horrek, kasurik gehienetan, lehenetsuna emango dio berari onura gehien eragingo dionari.

Kudeaketa-zereginetik denbora ugari kendu ohi dute, lan zeharo burokratikoak egiteko. Ez litzateke hobeto plantillan zeregin horietarako beren-beregi kontratatutako pertsonak izatea, alegia, horretan espezializatuko direnak? Edu horretan, denbora asko libratuko litzateke beste bi egitekoetan buru-belarri aritzeko. Bide batez, kudeaketa hori ahalik gehiena arintzeko neurriak hartzea ere komenigarri litzateke. Ikasle, irakasle eta ikerlarientzako oinarrizkoenera mugatu beharko litzateke, alegia.



Ikerketak berarekin dakar sormen-lana eta badirudi gaur egungo unibertsitateak, beren-beregi ikerkuntzan diharduten ikerlari nahikorik ez duenez, irakasle gehienak bultzatu nahi dituela ikerketara. Uste hori oinarritzeko ikustea besterik ez dago irakasleei ezartzen zaizkien betekizunak lan-baldintzak hobetzeko eta aitorten profesionala lortzeko. Bada, unibertsitateak irakasleak bultzatzen ditu unibertsitate-esparruko kalitate-agentzien egiaztagiria lortzera. Eta egiaztagiri horiek lortzeko derrigorrez izan behar da ikerketa, hau da, argitalpenak eta kongresuetako partaidetzak. Halako agentzien artean daude Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia (UNIBASQ) (<http://www.unibasq.org/es>) eta *Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación* (ANECA) (<http://www.aneca.es>).

Halaber, ikerlari gisa ikertaldeetan izatearen aldeko apustua egin dute unibertsitateek. Helburua da Administrazio publikoek egindako deialdietan aitortpena lortzea, modu horretara diru-laguntzak jasotzen direlako. Aitorten publikorik lortu ezean, unibertsitateek aitortu ohi dituzte zenbait ikertalde, betiere, gutxieneko baldintza batzuk betez gero (kasuan kasuko barne arautegian zehaztutakoak). Baina halako aitortpena barne ondoretarako baino ez da, eta, gehienez ere, oinarritzeko gastu batzuk finantzatzeko.

Ikertaldeein estu lotuta, ikerketa zehatzetarako deialdietan parte hartzea funtsezko da. Halako deialdiak ere, gehienbat, Administrazio publikoek egiten dituzte, Europakoetatik hasi eta Foru Aldundietarainokoak. Funtsezkoa da ikertaldeen ikerketa publikoak aitortuta izatea, derrigorrekoa delako halakoak izatea ikertaldeen aitorten publikoa lortu ahal izateko.

Orobat, irakasle bakoitzaren maila-igoerei dagokienez, aintzat hartzen dira ikerketa-emaitzak. Horretarako ikerketako seiurtekoak lortu behar dituzte irakasleek. Zehatzago, ikerketako seiurtekoak honetan datza: doktore den irakasleak sei ur-



tean idatzitako bost ikerlan hautatu behar ditu, berak argitaratutako doktrina-artikulu, liburu edo liburu-kapituluen artean, eta Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak / *Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora* (CNEAI) delakoak ezarritako baldintzetan justifikatu behar du ikerlan horiek nahiko meritu badituztela. Horren arabera, aldeztatik izendatutako eta jendaurrean jakinarazitako auzitegi akademiko batek balioetsi eta kalifikatuko du aurkeztutakoa, oniritzia ala gaitzespena emanaz.

Are gehiago, gaur egungo unibertsitate-ikasketa ofizialak hiru mailatan sailkatu dira, hots, Gradu-, Master- eta Doktoretza-ikasketetan [cfr. urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitate-ikasketa ofizialak antolatzeari buruzkoa (2007ko urriaren 30eko EAO, 260. zk.), 2. artikulua]. Eta, doktoretza-ikasketetan, doktoretza-tesi zuzendari izateko, doktorea izateaz gain, ikerketa-esperientzia egiaztatu behar da, hau da, gutxienez, ikerketako seiurteko bat izan behar da [cfr. urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretua, doktoretzako ikasketa ofizialak arautzekoa (2011ko urriaren 2ko EAO, 35. zk.), 11.3 eta 12. Artikuluak]. Beste horrenbeste behar da, gainera, doktoretza-tesiak ebaluatzeko auzitegietako kide izateko (cfr. 99/2011 Errege Dekretua, 14.2 artikulua).

Era berean, kontuan hartu behar da doktoretzako ikasle asko bihar-etzi irakasle izan daitezkeela. Bada, halako ikasleei, gaur egun, doktoretza tesia defendatu aurretik, eskatzen zaie, aldeztatik eurek egindako ikerketa-planarekin bat etorriz, edozenbat ikerlan eta kongresuetako partaidetza izatea. Bestela esanda, planteamendu tradizionala zeharo aldatu da. Izan ere, planteamendu horren arabera, doktoretza-tesia eginda egiaztatzen zen ikerketarako gaitasuna. Gaur egun, ordea, beharrezkoa da aldeztatik ere gutxienerako ikerketa-meritu batzuk izatea.

Edonondik begira dakiola ere, orain arte aipatutako ikerketa ez da edonolako izan behar, hau da, oihartzuna edo inpaktua izan behar du. Eta hori neurtzeko irizpide jakin batzuk hartzen dira kontuan. Liburuen eta liburu-kapituluen kasuan, nabarmentzen dira argitaletxearen ospea, eta argitaratutako liburuak jasotako aipamenak (beste lan batzuetan, erreseinetan...). Doktrina-artikuluei dagokienez, halakoek beste lan batzuetan izandako aipamenez gain, garrantzia ematen zaio artikulua argitaratu den aldizkari zientifikoari. Edozein kasutan, ez da begi onez ikusten argitalpenak jasotzea irakasle-ikerlaria zein erakundetan partaide izan eta erakunde horiek argitaratutako liburu eta aldizkarietan. Esan bide da, horrek nolabaiteko endogamia akademikoa eragiten duela eta hori saihestea dela neurri horren xede nagusia.

Gisa bertsuan, ikertaldeak aitortzeko deialdi publikoetan ere irizpide horiek darabiltzate, produkzio zientifikoaren kalitatea balioesteko [adibidez, ikusi 2015eko azaroaren 10eko Agindua, Hezkuntza, Politika eta Kulturako sailburuarena, euskal unibertsitate-sistemako ikertaldeek jarduerak bultzatzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena (2015eko azaroaren 16ko EHAA, 218. zk.), 11. artikulua, ikertaldeak ebaluatzeari buruzkoa].

Ildo horretatik, liburuen kasuan, argitaletxeen garrantzia neurtzeko kontuan hartu ohi dira zenbait datu-base, adibidez, humanitateen eta Zientzia Sozialen esparruan, *Scholarly Publishers Indicators* (SPI) (<http://ilia.cchs.csic.es/SPI/>).

Aldizkari zientifikoek kasuan, askotariko datu-baseak daude. Beharbada, ezagunenak eta garrantzirik handienekoak dira, mundu-mailakoak izateagatik, Elsevier argitaletxearen SCOPUS (<https://www.elsevier.com/solutions/scopus>) eta Thomson Reuters argitaletxeak *Web of Knowledge* plataforman jasotako datu-baseak ([https://apps.webofknowledge.com/UA\\_GeneralSearch\\_input.do?product=UA&search\\_mode=GeneralS](https://apps.webofknowledge.com/UA_GeneralSearch_input.do?product=UA&search_mode=GeneralS)

earch&SID=Y1jgUk2qmirgCVmPPKT&preferencesSaved=), *Web of Sciences* (WoS) delakoaren barnean, hala nola, *Science Citation Index Expanded* (SCIE), *Social Sciences Citation Index* (SCCI) eta *Arts & Humanities Citation Index* (AHCI).

Hain zuzen, datu-base horietan jasotako aldizkarietako lanak dira gehien balioesten direnak.

Bigarren maila batean leudeke bestelako datu-baseetara bildutako aldizkarietako lanak. Baina hor ere maila desberdinak daude (*Quartil* deritzenaren arabera sailkatu ohi direnak). Gainera, horrelako datu-baseak askotarikoak izan daitezke, hala jakitateen araberrakoak nola orokorrak. Hona, bada, adibide batzuk, batik bat, Humanitateen eta Zientzia Sozialen esparrukoak: *Revistas Españolas de Ciencias Sociales y Humanidades* (RESH) (<http://epuc.cchs.csic.es/resh/>); *Clasificación Integrada de Revistas Científicas* (CIRC) (<https://www.clasificacioncirc.es/>); *Difusión y Calidad Editorial de las Revistas Españolas de Humanidades y Ciencias Sociales y Jurídicas* (DICE) (<http://epuc.cchs.csic.es/dice/busqueda.php?idioma=es>); *LATINDEX Sistema Regional de Información en Línea para Revistas Científicas de América Latina, el Caribe, España y Portugal* (<http://www.latindex.org/latindex/inicio>); *Matriz de Información para el Análisis de Revistas* (MIAR) (<http://miar.ub.edu/idioma/es>); *In-Rech (Revistas Españolas de Ciencias Humanas)* (<http://ec3.ugr.es/in-rech/>); *In-Recs (Revistas Españolas de Ciencias Sociales)* (<http://ec3.ugr.es/in-recs/>); *In-Recj (Revistas Españolas de Ciencias Jurídicas)* (<http://ec3.ugr.es/in-recj/>); *Dulcinea* (<http://www.accesoabierto.net/dulcinea/default.php?directorio=dulcinea&letra=R>); *Carhus Plus + 2014* (<http://agaur.gencat.cat/es/avaluacio/carhus/carhus-plus-2014/>).

Bestalde, ikertzaileek euren doktrina-artikuluen aipamenak aurki ditzakete, besteak beste, hurrengo datu-baseetan: *Google Scholar* (<https://scholar.google.es>); *Periodical Index Onli-*

ne (PIO), Ulrich's Web; Hispania (<http://roai.mcu.es/es/consulta/busqueda.cmd>); Recolecta (<https://buscador.recolecta.fecyt.es>); Dialnet (<https://dialnet.unirioja.es/>).

Zernahi gisaz, irakasle-ikertzaile euskaldunek arazo handia dute orain arte aipatutakoari dagokionez: inpaktu edo oihartzun handieneko argitaletxe eta aldizkari zientifikoek ez dute jasotzen euskarazko artikulurik. Beraz, euskara ez da existitzen halakoentzat. Horren ondorioz, irakasle-ikertzaileek gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez idaztea erabakitzen dute, uko eginez euskaraz idazteari.

Egia esan, izan badira beheragoko mailetan kokatutako aldizkari batzuk euskarazko lanak jasotzen dituztenak. Esaterako, zuzenbidearen arloan, nabarmendu daiteke Zuzenbidearen Euskal Akademiaren JADO: Boletín de la Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria ([http://www.avd-zea.com/euskara/el\\_boletin.php](http://www.avd-zea.com/euskara/el_boletin.php)). Hala ere, horrekin ez da nahikoa irakasle-ikertzaile euskaldunek euren ikerlanak euskaraz idatz ditzaten.

Bestalde, aitorten publikoa lortu nahi duten ikertaldeek eskaerak ebaluatu ohi dira Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalaren (ANEPren) bidez (cfr. 2015eko azaroaren 10eko Agindua, Hezkuntza, Politika eta Kulturako sailburuarena, euskal unibertsitate-sistemako ikertaldeek jarduerak bultzatzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena, 11.2 artikulua). Beraz, agentzia horretakoak euskaldunak ez badira, gaitz da ikertaldeek euren eskaerak euskaraz aurkeztea.

### ***3.2. Kalitatezko irakaskuntza euskaraz***

Gaur egungo unibertsitate-eredua aztertu ondoren, horrek euskarazko irakaskuntza kalitatezkoa izan dadin sortzen dituen arazoei erreparatuko zaie jarraian. Egin-eginean ere, arazo horiek erronka dira euskaldunontzat eta erronkok aukera bihurtuko balira, euskararen potentziala ikaragarri indartuko

litzateke. Ikusiko den moduan, horretarako ezinbestekoa da Administrazio publikoek eta euskal unibertsitateek batera jardutea eta behar diren baliabideak arautu, antolatu eta abian jartzea.

Horrela, lehenengo arazoa da irakaskuntza eta ikerketa nahitaez bateratzeko dagoen joera, hau da, irakasleak derrigorean ikerlari izatearena. Zinez, unibertsitatearen egiteko dira bi-biak, ikerketaren bidez sortzen den jakintza irakaskuntzaren bidez hedatzen edo zabaltzen baita. Baina irakaskuntzak jakintza horren berri eman behar du erdi-mailako ikasleentzako egokituta. Bada, irakaskuntzan, arlo jakin baten ikuspegi orokorra eskaini behar zaie ikasleei; hortaz, ez da nahikoa esparru jakin batzuetan eta oso teknikoetan aditua izatearekin.

Irakaskuntzak nahiz ikerketak ordu asko eskatzen dituzte. Eta zer esanik ez horiei kudeaketa-zereginak gehitzen bazaizkie. Horregatik, asko dira arestian aipatu arrazoiengatik (*supra* 3.1), ikertu beharraren ikertu beharrean, arreta galdu edo deskuidatzen direnak irakaskuntzako zereginetan. Are gehiago, askotan, unibertsitateak berak, azaldutako ereduarekin bat etorritik, salbuesten ditu irakasle batzuk eskolak ematek, gehiago ikertu eta ikerketa-merituak egin ditzaten. Horrek, ordea, bestelako arriskuak erator ditzake, alegia, irakasleen arteko mailaketa eta irakasleen arteko erabateko lehia. Bada, azaldutakoaren haritik, ikerketak irakaskuntzak baino pisu gehiago du mailaz igo ahal izateko.

Horrek guztiorrek berarekin dakar irakasle askok, euskaraz irakatsi arren, eskulibururik eta material egokirik ez prestatzea euskaraz. Gainera, eskuliburuak ez dira ikerketatzat hartzen, nahiz eta horien atzean lan eskerga egon, jakitatez jakitate, euskara teknikoa landu eta garatzeko. Konparazio baterako, zuzenbidearen esparruan, itzulpengintzak berebiziko garrantzia du. Gure aplikazio-esparruko arauak gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daude eta arau horiek itzultzeko ez da na-

hikoa euskara arrunta jakitearekin. Euskara tekniko juridikoa landu behar da aldez aurretik, bai eta itzulpengintzako teknikak ere. Hain zuzen, posible da unibertsitateak, irakasteko materialak euskaraz sortu nahi izanez gero, kontrata eta azpikontratak baliatu eta itzultzaile profesionalak kontratatzea, banaka nahiz itzulpen-enpresen baitan jarduten dutenak. Alabaina, halako itzultzaileak ez dira euskara teknikoaren jakitun, eta, beharbada, egokiago litzateke jakitate bakoitzeko irakasleak kasuan kasuko euskara teknikoan prestatzea, nor izan daitezen euren kabuz euskara teknikoan idazteko, itzulpenaren zein sormen-lanaren bidez, itzultzaileen beharrik gabe. Bide batez, guztiz defendagarria litzateke ikerlerroak sortzea euskara teknikoaren esparruan ere, unibertsitateen eta Administrazio publikoen babespean horiek ere.

Halaber, unibertsitateak, modu horretara jardunez gero, irabazi bikoitza izango luke: aurrena, ikuspuntu ekonomikotik: behin arlo jakin bateko irakasleak prestatuta, ez lukeelako diru gehiagorik galduko itzultzaile profesional, baina, aldi berean jeneralista direnetan. Hurrena, euskarazko irakaskuntzalkalitatearen eta euskara hedatzearen ikuspuntutik: irakasleek eurek eskuliburu eta materialak sortuko lituzketelako. Jakina, horretarako aurrebaldintza gisa, beharrezkoa litzateke unibertsitateak egungo eredia aldatzea, eta irakaskuntzari behar duen prestigioa eta kalitatea ematea, kudeaketatik eta ikerketatik behar bezala bereiziz.

Aipatu berri denaren inguruan, egon badago esperientzia eder besteko aberasgarria zuzenbidearen esparruan, tamalez bertan behera utzi behar izan zena urte emankor ugari eta gero. Halatan, esperientzia horrek argiro erakutsi zuen errazagoa dela legelari bat euskara teknikoan prestatzea, itzultzaile bat zuzenbidean prestatzea baino, nahiz eta horretarako itzultzaileak bidelagun izan behar prozesu horretan. Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaiaren Institutuan, iragan mendeko 90eko hamarkadan hasi eta 2010. urteraino iraun zuen espe-



rientzia da hori, adibide batzuen bidez jaso dena hurrengo lan honetan: Arrieta Idiakez, F.J. «Euskarazko testu juridikoen idazkuntza itzulpengintzaren bidez: lan-zuzenbidea adibide gisa». Euskal Gaien Institutua. *Nomografia eta arau-idazketa elebiduna*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2009, 185-193 orr.

Harrezkero, esperientzia eder horretan partaide izan ginenok itzulpenak ez ezik, sormen-lanak ere egiten ditugu gure ikasleentzako. Kosta ahala kosta, baina egiten ditugu. Are gehiago, zuzenbidearen kasuan, sormen-lanak ahalbidetzen du malgutasun gehiagorekin aritzea, eskuliburu bidez errazago egunera daitekeelako hain aldakorra den zuzenbidea. Denbora optimizatu behar da, eta lege-testuak oso-osoa eta beharrezkoa den zehaztasunarekin eguneratzerik ez dago egungo baldintzetan.

Zinez, ikasleek eskertzen dituzte irakasgaietako eskuliburuak euskaraz izatea. Bada, halako eskuliburu baten hitzaurrekoan adierazi nuena gogora ekarriz «gure unibertsitateak askotxo aldatu dira Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren haritik. Testuinguru horretan, euskarak behar du halako bultzada edo sakada berezia, beste hizkuntza batzuen itzalpena ito ez dadin...» (Arrieta Idiakez, F.J. *Lan-zuzenbidea I*. Bilbo: Gomylex, 2014, 319 orr.).

Hain zuzen, Boloniako prozesuaren ondorioz sortutako esparru horretan, lehen mailako unibertsitate-ikasketak 5 urtetik 4 edo 3 urte izatera igaro ziren. Horrela, Lizentziaturak Gradu bihurtu ziren. Bada, 4 urteko Gradu batek 240 ECTS kreditu ditu eta 3 urteko Gradu batek 180 ECTS kreditu (ECTS kreditu bakoitza 25 ordu dira, eta ordu horiek dira ikaslearen gelako zein gelaz kanpoko lan-orduak). Horrela, segurtasun juridikoaren mesedetan, Espainian, unibertsitate-ikasketek dituzten irakastorduek zein diren jakiteko komeni da kontuan hartzea Unibertsitateetako Idazkaritza Nagusiaren 2017ko maiatzaren 11ko Ebazpena, argitaratu duenak 2017ko maiatzaren



10eko Unibertsitateen Kontseiluaren Akordioa, Graduako unibertsitate-ikasketa ofizialak arautzekoa (2017ko maiatzaren 13ko EAO, 114. zk.).

Aldaketa horiek eragin dute irakaskuntza beste era batera ulertzea, negozio-eskola deritzenen haritik. Halatan, suposatzen da ikasleek gaitasun batzuk eskuratu behar dituztela, hain justu, merkatuan aritzeko. Praktikotasuna landu behar omen da gehiago, ikasleak al bait azkarren enplegatu daitezten. Arean ere, praktikotasun hori xede izanik, irakasgai-kopurua nabarmen murriztu da, eta halako irakasgaien artean sarri askotan desagerrarazi dira lehen mailetan euskara tekniko lantzeko irakasgaiak.

Bada, horra hor gaur egungo unibertsitate-ereduak duen bigarren arazo nagusia. Horregatik, oso interesgarria litzateke euskara tekniko lantzeko irakasgaiak berreskuratzea, halakoak desagerrarazi diren ikasketetan. Izan ere, ikasleei erakutsi behar zaizkie euskara teknikoan aritzeko baliatu behar dituzten tresna eta baliabideak. Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik ere asko da egin daitekeena. Benaz, gogorra da goiko mailetako ikasle euskaldun askok ez ezagutzea Euskaltzaindiaren Hiztegia edo Euskalterm bezalako oinarrizko lanabesak; eta are gutxiago jakitate bakoitzaren esparruan daudenak.

Kontua da gure unibertsitateek, neurri handi batean bederen, teoriaren bidez ikasten den kontzeptualizazio hain garrantzitsua bertan behera utzi dutela. Eta halakorik gabe benetako praktikotasuna helburu izatea gaitz da. Beraz, horretan ere baliteke Graduako ikasketetan oker nahasi izana teoriaren eta praktikaren ikuspuntuak. Berrero ere Zuzenbidearen esparruari begira jarriz gero, oso gomendagarria da A Coruñaiko Unibertsitateko lan-zuzenbideko katedradun diren Martínez Girónek eta Arufe Varelak idatzitako lan hau: *La enseñanza del Derecho en las Facultades de Derecho de los Estados Uni-*

*dos. A propósito de la enseñanza en ellas del Derecho del Trabajo y del Derecho de la Seguridad Social* (Bartzelona: Atelier, 2015, 207 orr). Izan ere, liburu horretan argiro azaltzen da Estatu Batuetako unibertsitateetan ez ezik, Alemaniakoetan ere (non Zuzenbideko fakultateek Boloniako prozesua ez onartzearen alde egin zuten), bereizten dituztela, maila desberdinen arabera, ikasketa teoriko eta praktikokoak. Halako ereduak aintzat hartuz gero, seguruena, ikasketa-denborak hobeto antolatu eta baliatuko lirateke, eta euskara teknikoak ere tokia izango luke teorian nahiz praktikan.

Ostera ere irakasleei begira jarririk, hirugarren arazo nagusia da euskarazko ikerlanak argitaratzeko gaur egungo parametroekin bat egiten duten argialetxe eta aldizkari zientifiko gutxi izatea, halakorik ez dagoela ez esateagatik, garrantzi handienekoen artean behinik behin. Horrek, lehen aurreratu denaren ildotik, saihesten du irakasle-ikertzaile euskaldunek euskaraz idaztea euren ikerlanak. Eta beste horrenbeste gertatzen da ikerketako seiurtekoekin, aitorpen publikorako iker-taldeen eskaerekin, ikerketa-proiektu zehatzekin edo dokto-retza-tesiekin nahiz horiei lotutako ikerlanekin, baldin eta euskararik ez dakitenek balioetsi eta ebaluatu behar badituzte halakoak. Jakina, urratsak norabide egokian eman ahal izateko, jakitate bakoitzean behar adinako aditu euskaldun egon behar da trebatuta, bai eta ondo trebatuta egon ere.

Horretarako euskara teknikoa menderatuko duten irakasle-ikertzaileak prestatu behar dira; jakitate guztietan doktore euskaldunak behar dira. Hasian hasi, posible litzateke aurreko paragrafoan aipatu berri diren zeregin guztietan ere euskaldunak aritzea.

Eta hortik aurrera irakaskuntzan barik ikerketan sakondu nahi duten profesionalei bideak eskaini behar zaizkie, euskaraz idazten dutenean ere, beste hizkuntzetan idazten dutenean izan ohi dituzten kalitate-berme berberak, edo, gutxie-

nez, antzekoak, izan ditzaten, argialetxe eta aldizkari zientifikoei dagokienez.

Horretarako, Administrazio publikoak, ikertaldeetarako edo ikerketa zehatzetarako deialdietan, aintzat hartzen has daitezke euskarazko ikerlanak jasotzen dituzten zenbait argialetxe edo aldizkari zientifiko. Beharbada, hasiera batean, halakoak ez dira bestelako hizkuntzetan dauden argialetxeen eta aldizkari zientifikoaren parekoak. Baina helburu garrantzitsuagoak lortzeko bidean aukera bat da, euskara sustatu ahal izateko unibertsitatearen esparru zehatzean.

Era bereran, posible litzateke, gaur egungo kalitate-parametroekin bat etorriz, bertoko aldizkari zientifikoak bultzatzea eta babestea. Horretarako, kontuan har daitezke, esaterako, Zientziarako eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak, hots, *Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología* (FECYT) delakoak ezarritako baldintzak (<https://evaluacionarce.fecyt.es>). Hartara, halako aldizkariak nazioarteko irakasle-ikerlariei eta beste hizkuntza batzuetan idatzitako ikerlanei zabaldu behar dizkiete ateak, irakaskuntzaren kasuan ere, hizkuntzei dagokienez, defendatu izan den bezala (*supra* 2).

Bukatzeke, oso lagungarri litzateke Administrazio publikoek eta unibertsitateek euskaraz idatzitako ikerketa-produkzio guztia, jakitatez jakitate, datu-baseetan jasotzea, eta uneoro hori berori eguneratzen joatea, bai eta halakoen inguruan beste lan batzuetan egiten diren aipamenak jasotzea ere, kasuan kasuko ikerlan zehatzak eta horiei buruzko aipamenak uztartuz. Zuzenbidearen esparruan biltze- eta kontsultazereginetarako adibide litzateke Iusplaza, Zuzenbidearen webgunea, euskaraz (<http://www.iusplaza.com>).

Unibertsitateko irakasle euskaldun gisa, lan eginez erronkak aukera bihur daitezkeela sinetsita, eta, XXI. mendeko unibertsitatean ere, euskarak berme guztiekin eta mailarik gorenean tokia izan behar duelako uste osoarekin, honaino

saiakera-antzeko hau, ahalik modurik errazenean ulertzeko idatzia, labur eta zuzen.

*Francisco Javier Arrieta Idiakez<sup>1</sup>*  
*Deustuko Unibertsitatean, 2017ko maiatzaren 16an*

---

<sup>1</sup> Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra.